


Aretxagazeta

185. zka.



Elizgarai,
urrezko osasunaz adinean gora

Iturririk iturri: Gazte Asanblada • Iritzia: Kepa Errasti • Kirolak: Asier Bengoa

horma armairuak



AZKARATE AROZTEGIA

ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak*

AR DATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA

tolesgarriak

*horma armairu
irristagarriak*



ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA

FARMA

BIZI Parafarmazia



- Haurrentzako produktuak eta elikagaiak
- Dermokosmetikako produktuak
- Sanitatezko produktuak
- Sendagai naturalak
- Produktu ortopedikoak
- Produktu dietetikoak

... eta gainera: **Kontsulta naturala**

Loramendi, 8
20550 ARETXABALETA ☆ Tel.: 943 77 18 18





**ILEAPAINDEGI
ESTETIKA
SOLARIUMA**

LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA



garbitze

GARBIKETAK

- Lehor eta busti garbiketa
- Mota guztietako jantzien garbiketa

Loramendi, 6
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 53 61


ZATOZ LORAMENDIRA ☆ ☆ BERTAN AURKITUKO GAITUZU ☆ ☆ ZATOZ LORAMENDIRA

Mozorroa prestatzen hasi zara?




Santi Quintas

Bai, sukaldeko emakumeek egiten dute tabernako guztientzat. Domekan mozorrotuko gara. Gozo-gozoa egoten da gure mozorroa.



Maria Jesus Ibañez

Ez, ez naiz mozorrotzen. Ikustea asko gustatzen zait, oso giro ona egoten da eta. Dena dela, mozorro polita-goak Tolosan egoten dira.



Jesus Errasti

Ez, azken urteetan ez naiz mozorrotu. Lehen askotan mozorrotzen nintzen. Familia guztia mozorrotzen ginen, bai Andramaietan eta bai aratusteetan.



Ane Guede

Alabatxoa mozorrotuko da baina ni ez. Normalean ez naiz mozorrotu izan, ez dut ohiturarik izan. Alabatxoa, berriz, Miky Mousen jantziat aterako da.

ESKUTITZA



ABOKATU EUSKALDUNA ESKATU

Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Euskara Batzordeko arduraduna naiz. Idatzi honen bidez jakinarazi nahi dizuet Gipuzkoan, Euskara Batzorde honek bultzatuta eta Abokatuen Elkargoaren eskutik, kanpaina bat martxan jarri berri dugula Euskarazko Ofizioko eta Atxilotuei Urgazpeneko txandak indartzeko asmotan. Bi txanda hauen arabera Gipuzkoako euskaldun batek abokatu euskaldun baten zerbitzu profesionala eskuratu dezake. Ofizioko txanda 1998an hasi zen martxan Gipuzkoako sei epai barrutietan eta Urgazpenekoa urte batzuk lehenago. Ofizioko txandak zuzenbidearen arlo denak betetzen ditu: penala, laborala, kontzertuoso administra-

tiboa, zibila eta familia. Txanda bakoitzean 100 abokatu baino gehiago daude izena emanda.

Beraz, kanpaina honen bidez euskaldunei jakinarazi nahi dizuet, bereziki gipuzkoarrei, bi zerbitzu horiek eskura dituzuela eta gainera zuzen eskubidea dela.

*Aitor Idiakenez Sorazu
Euskara Batzordeko
Arduraduna*



ARTANGA ETA RALAREKIN SOLIDARITATEA

Artanga eta Rala udalerrriak eraisteko Nafarroako Gobernuak sustatutako proiektuaren berri izan ondoren, adierazitako txostena arbuaiatu egiten dugu eta bide batez proiektuak berak kaltetzen dituen bizi-lagunei gure solidaritate osoa adierazteaz gain laguntza osoa eskaintzen diegu.

- Hutsik dauden landa zonen berreskurapenaren alde gaudelako.

- Artanga eta Ralaren ekimena bultzatzen dugu eta bereziki aurrera eraman nahi diren proiektuak, besteak beste giza eraldaketa proposatzen dutelako, hierarkiaren kontra eginez eta autogestionario bihurtuz. Era berean Artanga eta Ralaren eraisketa proiektua errefusatzen dugu, Okupazioaren kontrako eraso politikoa delako. Honen inguruan informazioa nahi izanez gero, Haritz Bediairengana zuzendu, 696 877 119 telefonora.

*Artanga eta Ralako
herritarrak*

Aretxagazeta

185 zenbakia
2000ko otsailaren 24a.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.
Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Erredakzio-kontseilua:
Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak:
Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzailea:
Aitor Urrutia.
Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntza



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



ARATUSTEAK 2000

**atxabaltarrok,
ondo pasa**

EGUZKIGRAF inprimategia

Logo: **EGUZKIGRAF** KOOP. E. S.COOP.



*Aretxabaleta
okindegia*

aratusteak ondo
pasa ditzazuela



Mitarte, z/g ☎ 943 77 00 81
Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19



Mozorrotutako jendeak giro polita jarriko du herriko kaleetan aratuste domekan

Kolorez mozorrotuta datoz aratusteak

Aurten, ohikoa baino beranduago bada ere, laster ditugu gure artean aratusteak. Eguna mozorrotutako jendeak girotzen duela argi dago, baina beti laguntzen dute antolatutako ekintzek:

Martxoak 5, domeka

- 10,00 Txistulariekin diana.
- 12,00 Akelarre txarangaren etorrera eta ondoren, kuadrilen desfilea.
- 13,00 Aurtengo Santa Ageda neska-mutilen eskutik "txino dantza".
- 18,00 Euskal presoak Euskal Herrira eskualdeko plataformak deituta kalejira errei-bindikatioa Kalebarren eta Akelarre txarangaren laguntzaz.
- 19,00 Santa Ageda mutilen dantza plazan. Ondoren mozorro lehiaketako sari banaketa.
- Afal ostean Akelarre txaranga, kaleak girotzen.

Martxoak 7, martizena

- 10,30 Pausokako haurrak plazaraino etorriko dira mozorrotuta.
- 11,00 Kurtzebarri haurreskolako umeek txino dantza egingo dute herriko plazan.
- 15,00 Incansables txarangaren etorrera.
- 17,30 Txarangarekin batera buruhaundiak.
- 18,30 Txusma antzerki taldearen eskutik "Vojnerek familixe" antzezlan kaleetan zehar.
- 20,30 Afari herrikoia Taberna Berri jatetxean, lutoz jantzita etorri. Txartelak 2.000 pezetan salgai Taberna Berrin eta Arlutzen.
- 22,30 Txinoaren hileta; Mitarte kaletik herriko plazaraino komitiban joango da.

■ **MARTXOAREN 12KO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEAK HAUTATU ZIREN EZ OHIKO BILKURAN**
Otsailaren 14an egin zen ez ohiko osoko bilkuran, hiru puntu onartu zituzten. Batetik, martxoaren 12ko hauteskundeetan botu mahaietan egon beharko diren kideak hautatu ziren. Bertan hautatutakoei, hurrengo egunetan pasatuko zaie abisua. Bestetik, Gellaora ura eroateko Aretxabaletako Udalak Esko-riatzakoarekin hitzarmena sinatzea erabaki zen, eta azkenik, Repsol Butanok Udalarri jarritako errekur-tsoari aurre egiteko, abokatu eta prokuradoreak izen-datu ziren.

■ **MARTXOAREN 2A, POSTA BIDEZ BOTUA EMATEKO AZKEN EGUNA**
Datorren martxoaren 12ko hauteskundeetan ere, nahi duenak botua posta bidez eman ahal izango du. Horretarako postetxean egin behar da eskaria eta martxoaren 2a izango da eskaria hau egiteko azken eguna. Botua egiaztatutako posta bidez igortzeko azkenengo eguna, bestalde, martxoaren 8a izango da. Dena dela posta bidez bozkatzeko asmoa duena, ez dadila azkenengo ordura arte begira egon, lehenbailehen joan dadila postetxera eta bertan emango dizkiote argibide guztiak.



Luvia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19
ARETXABALETA



HIRUATX GERATU BARIK LANEAN

Hiruatz, hirugarren munduari laguntzeko sortu zen taldea, geratu barik ari da lanean han eta hemen. Ibon Antero, Hiruatzeko kidea, oraintsu Condegan, Nikaraguan, bost astetan izan ostean berriz bueltan da. Bertan ikusitakoa, Mitch hurakanaren ondorengo etxe eraikuntza, herriar gutzietan eta batez ere Condegako proiektua aurrera eramaten lagundu dutenei jakinarazteko asmoz, bideo eta diapositiba emanaldia antolatuta da. Emanaldi hau otsailaren 24an, osteguna, arratsaldeko 7,30etan udaletxe zaharrean izango da.

UNAI-2 proiektua ere martxan dute Hiruatzekoek, Indian 120 bufala erostea hain zuzen. Bertan bizi den Inazio Galdosen gabonetako berrien arabera, beste 38 esne-bufala euren kumeekin erosi eta banatu dituzte. Une honetan, jadanik, 5.100.000 pta. lortu dira eta guztira 8.000.000 pta.ra iristea da helburua.

Plataformak aratusteetako ekintzen berri eman zuten

Joan zen eguakotxean, eskal presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataformak batzar informatiboa egin zuten. Bertan, hurrengo aratusteetan, Aretxabaletan egin nahi den eskualde mailako ekintzaren berri eman zuten. Aratusteetako giroa aprobetxatuz, kalejira erreibindikatiboa izango da herriko kaleetan zehar, Akelarre eta herriko Kalebarren txarangen laguntzaz. Eskualdeko Udalek eta kultur eta kirol taldeek euren babesa eman die kalejira honi.

Honez gain, beste bi gai ere komentatu ziren; batetik, martxoan, Kepa Urrea gose greban hasiko dela eta plataformak ere ekintza sinbolikoak egiteko asmoa daukela eta bestetik, Plataformako mahai iraunkorrean dauden kideen aldaketa. Urte bete

lanean ibili ostean, bertako kide erdiak aldatzea komeni dela adierazi zuten.

EPEH izara txikiak

Aratusteetako kalejirarako, plataformak, izara txiki batzuk aterako ditu, paparrean jarteko izarak. EPEH izarak bultzatzeko kanpaina honen lema "gure balkoian, gure kaleetan eta gure bihotzean euskal presoak Euskal Herrira" izango da eta aratuste aurretik jarriko dira salgai hainbat denda eta tabernetan 100 pta. ren truke. Plataformako kideek, izarak, balkoi eta bihotzetan jartzera animatu nahi dituzte herritarrak, alderdi politikoaren ideien gainetik dagoen erreibindikazioa delako euskal presoak Euskal Herrira lema.



Maiatzean egin zen giza kateak besteko arrakasta izatea espero da

UDALARI DAGOKIO URKULU GARBITZEA?

Pasa den otsailaren 11an Xabier Etxebarrieta, ingurugiro zinegotzia, udaleko zerbitzuetako hiru langilekin batera Urkuluko bazterrak garbitzen aritu zen. Land Roverkada bat zikin-keria batu zuten bertan. Bi bildots hilda ere aurkitu zituzten, Urkulura ura daroan errekatxo baten alboan gainera. Hildako abereak botata uztea ez da batere egokia eta utzitako lekua kontuan izanda, desegokia gain kutsakorra eta kaltegarria izan daiteke.

Urkuluko urtegia eta ingurua, ordea, Gipuzkoako Ur Kontsorzioarenak dira eta bertan egin nahi diren ekintza guztietarako Kontsorzioari eskatu behar zaio baimena. Beraz, zentzuari jarraituz, garbitzeko orduan ere Kontsorzioa egin beharko litzateke kargu, nahiz eta momentuz horrela ez izan. Ea hurrengoan hala den eta udalak ez duen joan beharrik izaten.



GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekararren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA



KANPO ZORRA DEUZESTATZEKO HERRI KONTSULTA

Astelehen honetan Aretxabaletako eta Arrasateko kanpo zorra deuzestatzearen aldeko herri kontsulta aurkeztu zen. Ekimen hau Arrasateko hainbat gobernu kanpoko erakundek eta Aretxabaletako Hiruatz taldeak bultzatzen dute. Datorren martxoaren 12an Espainiar estatuko hauteskundeak di-rela aprobeztatzuz, kontsulta herrikoia antolatuta da herri-tarrek kanpo zorra deuzestatzearen gain duten iritzia agertzeko. Ekimen honen helburuak, gizartea kanpo zorraren errealitatearekin sensibilizatzea, demokrazia parte hartzailea bultzatzea eta Gobernuari presio politikoa egitea dira.

Kanpo zorra, hirugarren munduko herriek euren garapenerako duten oztopo nagusienetakoa da. Kanpo zorraren sorrera eta hazkuntzean, gainera, iparraldeko herriok erantzunkizun handia daukagu. Gaur egun 84 herrialde dira kanpo zorra dutenak.

Xabier Altube, Bergarako Amodiozko Gutunen VIII. Lehiaketan saritua

Pasa den astelehenean, San Balentin eguna, Amodiozko Gutunen VIII. Berrigara Lehiaketako sari banaketa egin zen. Aurtengo edizioan, sarituen artean, Xabier Altube atxabaltarra izan zen.

133 lagunek parte hartu zuen lehiaketan, Xabierririk irakurle gazteen saria eman zioten, Xabier Diaz de Zerrioren eskultura bat hain zuzen. Epaimahai gaztearen iritziz, orijinala eta polita da Xabierren amodiozko gutuna. Bertan, benetan istorio bitxia kontatzen da, lagun bati kuadro bat bidali ostean, kuadroaren interpretazio berezia eta bere maitasunaren aitortzea hain

zuzen.

Lehen ere saria jasotakoa

Ez da Xabierrek lehiaketa batean parte hartzen duen lehenengo aldia, ezta saria irabazten duena ere. Idaztea gogoko duen mutil honek sarritan parte hartzen du ipuin lehiaketetan eta hainbat sari ere jasoak ditu. Orain hiru urte, 1997an, Urrietako Udalak antolatutako On Manuel Antonio Antia lehiaketan, 14 urtetik gorako sailean, 1. saria irabazi zuen.

Ziur gaude idazle atxabaltar gazte honen berri daukagun azken aldia ez dela izango.



Kurtzebarri eskolan VIII. antzerki astea ospatu dute

Kurtzebarri eskolakoek, azken urteotan bezala, antzerki astea egin zuten otsailaren 14tik 17ra bitartean. Dantzak, antzerkiak, abestiak, txotxongiloak... eta beste hainbat ekintza burutu zituzten ume eta gazteek, ikustera joandako guraso eta lagunen aurrean. Lehen Hezkuntzako "tailerrak" eta DBHkoen asmakuntzak ere ikusgai izan ziren.

TORTUREN KONTRAKO HITZALDIA

Otsailaren 13an, Mikel Arregi atxilotua, torturatua eta hila izan zela gogoratuz, torturen kontrako eguna ospatu zen. Hori dela eta hilaren 9an torturen kontrako hitzaldia antolatuta zuten Amnistiaren Aldeko Batzordeak.

30 pertsona inguru bildu zen hitzaldian, torturen kontrako komiteko kide bat izan zen hizlari. Bere esanetan, gaur egun oraindik jendea torturak jasaten ari da, nahiz eta torturatzeko era aldatu. Garai batean, tortura fisikoa bazen nagusi, orain psikologikoa ari da lekua hartzen. Hiru tortura mota bereiztu zituen eta ONUk torturari emandako definizioan oinarrituz, estatuko funtzionarioek edozein pertsonari edozein tokitan egindako mina, hiru torturazailen ezaugarriak ere aipatu ziren, Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta Hertzantzaren ezaugarriak.



GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABAleta





ARKARAZOKO ELIZA KONPONDUTA

Herriko auzoetako elizak gero eta zaharragoak izanik, berriztu eta txukundu beharrean aurkitzen dira. Izurrieta eta Koruetakoa egin ostean, azkena Arkarazokoa izan da, Gabonak inguruan hasi eta bukatzeaz dagoena. Hemen, zorua zen egoera txarrean zegoena, erabat ustelduta, eta horixe konpondu da. Egurra jarri beharrean, hezetasuna dela eta arazoak ematen baititu, baldosa jarri da. Gainontzekoa, hormak, aldarea, korua... egoera onean daudenez, dagoenetan utzi dira.

Hurrengo berriztuko direnak Larriñoak eta Gellaokoa dira. Larriñoakoari teila-tua konpondu behar zaio eta Gellaokoak berriztapen orokorra behar du. Foru Aldundiko teknikariek, bere garaian, lan hauek guztiak egiteko baimena eman bazuten ere, berriz etorri nahi omen dute elizei beste begirada bat botatzera. Arazorik izan ezean behintzat, lehenbailehen hasi nahi da konponketa lan hauekin.



Julian Elorza bi alaba eta iloba alboan dituela bere urtebetetze egunean

Julian Elorzak 99 urte bete ditu

Julian Elorza, "Moriko", herriko zaharrena da. 1901eko otsailaren 17an jaio zen Mendiolan, beraz pasa den egunean 99 urte bete zituen. Ia mende osoa bizkar gainean duen Julian, aspalditxoan ez da etxetik irteten baina itxura ederrarekin topatu genuen lehiotik begira.

5 seme-alaba ditu eta 11 iloba, baita 19 birloba ere. Bere alaba M^a Karmenen esanetan, oso umore oneko gizona izan da beti "txikitan

bost anai-arreboi gosaria ematen zigun bitartean bertsotan eta aureskua dantzaz ibiltzen zela dut gogoa". Orain, jadanik, kantuan ez du egiten baina entzun ondo egiten du eta gauzetaz konturatu ere bai, erantzunik eman ez arren. Txokolatea asko gustatzen omen zaio, nahiz eta gehiegi ezin jan. Pasa den egunean, ordea, nahi adina jan ahal izan zuen, arrazoia ere ez zen makala eta.

TXAKURREN KAKAK JASOTZEKO KANPAINA

Azkenaldian herriko hainbat tokitan txakur kakak pilatzen hasi direla konturatuta, Udalak txakurren kakak jasotzeko kanpaina jarriko du martxan. Momentuz, zonalde zikinenetan, Lausittako lorategiak eta Santa Kurtzeko trenbideko pasialekuan piktogramak jarriko dira, arazoa gogorarazteko. Ondoren, herriko atari guztietan bandoa ere jarriko da. Udalak, kakak jasotzeko poltsak emango ditu eta txakurren jabeek laguntza eskatzen zaie herria garbi mantentzeko. Herritarrek parte hartu ezean neurri gogorak hartuko ditu Udalak eta Ordenantza baten bitartez zigorrak ezarri.

"ASOCIACION CHERNOBIL"EK FAMILIAK NAHI DITU

Bilboko "Asociación Chernobyl" taldeak, uztaile eta abuztuan, Chernobilgo hondamendi nuklearrean kalteak jasandako umeak etxean hartzeko familiak nahi ditu. Interesa duten familiek 670 41 90 78 telefono zenbakira dei egin dezakete, astelehen eta ostegunetan arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean. Ume hauek etxean hartu ezin baina lagundu nahi izanez gero ere talde honetara jo dezakezue.



**ANDRA
MARI**

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Jauregi Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaleta

Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



MAPFRE Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76

Azken urtean aldaketa ugari egon dira Gaztetxean. Gazte Asanblada, Gaztetearen irudia aldatu eta gazte guztien etxea egiteko buru belarri hasi zen lanean, baita lortu ere. Hurrengo erronka Gaztetekeo txokoa berriztea izango da.



Gazte Asanblada Gaztetea etorkizunari begira

■ Zenbat lagun elkartzen zarete asanbladetan?

■ Azkenengo batzarretan, Galartzan egindako astebukaera ostean, 20tik gora elkartzen gara. Lehen 5-6 izaten ginen, 10 asko jota. Asanbladak beti irekiak izan badira ere, orain, martizenero egiten ditugun bilerak talde txikitik egitea erabaki dugu eta sei hilabetero asanblada handiak, jende guztiari irekiak.

■ Zer egiten duzue martizenero bileretan?

■ Egunerokoa, aste bukaeretakoa ekintzak antolatu, antzerkiak, kontzertuak... Jendeak ideiak proposatzen ditu eta gehienak aurrera eramaten ditugu. Dena dela ideia ugari daude, falta dena lana egiteko jendea eta gogoia da.

■ Aurrera begira Gaztetekeo proiekturik baduzue?

■ Bai, Galartzan hainbat ideia

agertu ziren, hiru puntutan laburtu daitezkeenak: batetik, gaztetea zer den esan genuen, gazteak elkartzeko topagune irekia, dinamikoa, zoroa, baikorra, aktiboa, solidarioa, kritikoa, insumisioa, alternatiboa... Bestetik antolaketa erabaki zen, talde txikitik lan egitea, baita herriko talde guztiei irekia egotea ere elkarrekin lan egiteko. Azkenik, finantziaketari buruz hitzegin genuen. Ahal den neurrian aurrera ateratzeko dirua geuk lortu nahi genuke, gaztetekeo filosofia mantendu eta inork baldintzarik jar ez diezagun.

■ Galartzan egindako astebukaeran espero zenutena lortu zenuten?

■ Bai. Batetik, jende ugari agertu zelako, goizean 25 bat egon ginen eta arratsaldean, 40 inguru. Eta bestetik, Gaztetekeo gai guztiei buruz hi-

tzegin zelako, baita eztabaida sortzen zuten puntuei buruz ere, telebista bai edo ez, taberna bai edo ez... Oso dinamikoa izan zen eta erabaki ugari hartu genituen.

■ Orain arte antolatutako ekintzek nolako erantzuna jaso dute?

■ Ekintza gehienetan gainezka egon da Gaztetea, antzerkia dela, ipuin kontalaria dela... udazkenari agur esateko antolatutako jaiak ere oso erantzun ona izan zuen. Aktibitateak daudenean jende ugari hurreratzen da baina ezer antolatzen ez denean, berriz behera egiten du Gaztetekeo giroak.

■ Gaztetea berrizteko proiektua ere baduzue...

■ Udalarekin hitzegin behar dugu aste honetan. Guk, gogo handiz hartu dugu proiektua burutzeko lana eta lehen-

bailehen egitea nahi genuke. 9 milioiko aurrekontua onartu da Udalean eta Galartzan hartutako erabakien arabera egin nahi dugu berriztapena. Ekintza askotarako txiki geratzen da gure txokoa eta berriztatzerakoan banaketa egokia egin nahi dugu ekintza ezberdinetarako balio dezan. Txikia izateak bere abantailak ere baditu, noski, goxoagoa izatea esaterako.

■ Nolako giroa dago momentu honetan?

■ Jende gaztea ibiltzen da gehienbat, 16 urtetik 23ra bitartekoak. Musikaren kontua ere asko eztabaidatu zen, eta era guztietako musika jartzea erabaki zen, bolumena bajuxeagoa izanik. Gaztetea herrira hurbildu nahi da, nolako gazteak dabiltzan bertan ezagutarazi eta jendea erakarri, herritar guztiei baitago zabalik.

Echevarria vs Etxebarria

Orain arte lan astuna zen NANA bezalako agiri ofizialetan izen abizenak euskal grafia pasatzea, baina 1999ko urriaren 21ean Espainiako Kongresuak onartutako Lege Proposamenak erraztu egiten du eragiketa hau.

Gaur arte makina bat agiri erakutsi behar izaten ziren abizenaren grafia aldatu aurretik: izen-abizenen euskarazko bertsioa zeukaten sei dokumentu, jaiotza eta errolda agiria etabar. Horretaz gain, aldaketa egiteko beharrezkoa zen izen edo abizena Euskal Deituren Izendegian edo Euskal Izenen Izendegian azaltzea.

Aretxabaletako Udaletxean esan didaten bezala adinez nagusi den edozeinek aldatu dezake nahi izanez gero izen edota abizenaren grafia. Aldaketa hori itzulpena denean, berriz, (Perales-makazaga edota Pedro-kepa) aldaketa egin dela ziurtatzen duen ziurtagiri bat egin beharko litzateke.

Arrasateko notariako idazkariak zera dio aldaketa egiteak suposatzen dituen ondorioei buruz: "jendea beldur da grafia aldatuz gero oinordekotzarekin arazoak egon daitezkeela pentsatzen baitu, baina gaur egun jadanik ez dago inolako arriskurik egunerokotasunean ikusten den gauza bat da. Nahiz eta gurasoak abizenak erdal grafian izan eta seme alabek euskaldunean, oinordeko izateko arazorik ez lukete eduki-ko".

Askotan beldurra izan daiteke jendea grafiak ez aldatzera bultzatzen duena, baina beste kasu askotan beldurra beharrezko nagitasuna ere badela uste dut. Bankuetan jakinarazi didaten bezala, jende askok kontu korranteetan beraien izen-abizenak euskal grafian ipintzeko eskatzen du, baina NANean grafiak erdaraz dauden bitartean bankuko kontuetan ere erdaraz egon behar dira izen-abizen horiek.

Bakoitzak bere izen abizenen grafiarekin nahi duena egitearen aldekoa naiz. Baina hala eta guztiz, nik jendea animatu egingo nuke izen-abizenak erdal grafiatik euskal grafia pasatzea. Jendeak izena guztiz aldatzerik (Luis-Koldo) nahi ez izatea normala iruditzen zait ordea, bakoitza bere izenera ohituta baitago.

Gure hizkuntzak betidanik izan ditu makina bat etsai eta mende honetan zehar inoiz baino gehiago. Behin baino gehiagotan egon da desagertzeko zorian eta nire aburuz aukera honi etzaio ihes egiten utzi behar.

Jendeak behin grafia horiek aldatuko balitu abizen horiek jadanik finkatuta geldituko lirake eta hori oso aberasgarria izango litzateke euskararentzat. Euskarak bizirik jarraitzea denon erantzunkizuna da eta aldaketa txiki hauek izugarritzko aurreapausua suposatzen dute.

Nik behintzat jendea poliki-poliki kontzientziatzen joango den itxaropena daukat. Ea noizbait euskara murgilduta egon den putzutik guztiz ateratzen dugun!



Kepa Errasti

PAGALDAI

**Opari denda
Lurrindegia**

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

**BENGOA
URDAITEGIA**

*Bertako okelak eta
mortzilik*

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59





Margaritak 89 urte egin berri ditu eta Nikolasek 94 egingo ditu baina bien artean gobernatzen dute Elizgarai baserria.

Elizgaraitarrak, baserritarrik zaharrenak lanean gogor

Denok bizi nahi dugu luzaroan, zenbat eta egun gehiago, zenbat eta urte gehiago hobeto. Zahartzarora heltzea, ordea, inork gutxi nahi du; hemengo mina, hango kexa... Gaur egun gero eta urte gehiago hartzen dira. Egindako azterketen arabera, emakumearen bizi itxaropena 83 urtetan dago eta gizonezkoarena 74an. Urte asko bai baina zein egoeratan bizitzeko?

Elizgarai baserrian, urteetan aurrera eginda-

ko anai-arrebak bizi dira, arrebaren bi semerekin batera. Ez bakarrik bizi, baserriko lan gehientsuenak ere bien artean gobernatzen dituzte. 90 urteren inguruan ibili arren goizetik gauera lanean. Ez dute bizitzeko beste erarik ezagutu eta dakitena egiten dute, lana. Ezina berez etorriko da, baina ahal den artean horrelaxe jarraitu nahi dute, kanpoko laguntzarik gabe.



“Oraindik ez diot igarten zahartzaroari, hankak oso aidoso dauzkat eta. Unikamente, badakizu, burua..., gaztetan baino gehiago ahaztu edo, baina bastante ondo daukat”

Elizgarai izenak eliza gainean dagoena esan nahi du. Garai batean, gaur egun kanposantua dena eliza zen eta hortik datorkio baserriari Elizgarai izena. Herritik urruti samar geratzen da eta bizilagunik hurrenak Errotetxeakoak dira. Bide ona daukate, porlanezkoa, baina oinez joanez gero igo egin behar da bertako aldatza.

Elizgarain, Lasagabaster Okina familia bizi da; Nikolas 93 urtekin, bere arreba Margarita 89 urtekin eta honen bi seme, Jose Inazio eta Tomas. Urteetan aurrera joanda egon arren, “urteetan ondo gaude, milioietan baino hobeto” dio Margaritak, bi anai-arreben artean gobernatzen dute baserria.

Baserria gobernatzen

Nikolas etxeko mutilik zaharrena izan zen. Beraz, baserria eta baserriko lanak tokatu zitzaizkion. Igerra baina gogorra da. Margaritaren esanetan ez da sekula medikuarengana joan, gaixotuta ohean ere ez omen du aspaldian ikusi. Gortuta dago baina aise egiten ditu baserriko lanak. Behie azpiak atera, esnea batu, sega egunero pikatu, bedarra moztu, astoarekin bedarra ekarri, egurrak ekarri... eta beste horrenbeste. Umetatik lanean erakutsi zioten eta ez daki besterik egiten.

Sei behi eta astoa dituzte, baita oilo batzuk ere. Behiek aspaldian ez dute txahalik

egin eta erdi antzututa, esnea etxerako lain besterik ez dute ateratzen. Margaritak haserre egiten dio Nikolasi pentsua ematen die-lako jaten “lehen txahala egiten zutenean ere ez genien pentsurik ematen eta orain aketixen bakarrik egiteko...” Jose Inaziok ganauak kentzeko ahalegina egiten du baina alperrik, Nikolasek gorra du bestela ere baina hori entzuteko haundiagoa.

Margarita, etxeko lanez arduratzen da. Gelei pasadatxoa eman, bazkaria pres-tatu, erropak garbitu... Lehen ortua ere bazuen, baina esfortzuzko lanik ez egiteko esan zioten eta poliki-poliki utzi egin zuen, hori bai

pena haundiarekin. “Oraindik ez diot igarten zahartzaroari, hankak oso aidoso dauzkat. Unikamente, badakizu burua, gaztetan baino gehiago ahaztu edo, baina bastante ondo daukat”.

Soloko lanak utzita


Elizgarai baserriak lur sail haundiak ditu. Garai batean gehientsuena landuta zeukaten artoa dela, garia dela... Nikolas ibiltzen zen solo lanetan. Garia ogia egiteko izaten zen, laba sua egin eta urte guztirako ogia etxean. Hemen inguruan azkenengo garia erein zutenak eurak izan ziren “azkeneko Gipuzkoako txori guztiak enteratu ziren garia non zegoen, eta, txoriendako garia eta kamararako lastoa”.

Gaur, berriz, ez daukate solorik, behientzako zelai bihurtu dira lur sail guztiak. Udan, beste baserri batzuetan bezala bedarra batu eta negurako gordetzen dute. Lan guztiak eurak egiten dituzte moztu, buelta eman, batu eta azkenean enpaktadora etortzen da kanpotik.

Aspaldian kalera etorri barik

Margaritari, urtean behin ileapaindegira joatea gustatzen zaio. Lehen mezetara ere etortzen zen baina orain telebistatik entzuten du. Erosketak, berriz, semeek egiten dizkiote. Jose Inaziok harategi eta arrandegikoa eramaten du eta Tomasek, zapaturu, beste jatekoak erosten ditu. Ezina etortzean nola konponduko ote ziren bazen ere bere ardura, ondo moldatzen dira. “Orain hiru-lau urte pentsatzen nuena baino hobeto nabil. Pentsatu egiten da, kalera joateko beste ez naitenean zer egingo ote juau... baina ez zait ezer falta, dena ekartzen didate”.

Elizgaraioko etxekoandrea



lehen jubilatuen eguneko bazkarira joan ohi zen baina badira urte pare bat joan ez dela. Oraindik lagunekin egotea, ordea, gogoko duela aitortu zuen, horretarako ez dagoela erretiratuta esanaz.

90 urteen inguruan

Lasagabaster Okina familian zazpi anai-arreba izan ziren. Arreba nagusia orain hila-bete hil zen 98 urtekin, beste bat Eibarren bizi da eta 96 ditu egiteko. Euren ama ere, hil zenean 93 urtekin, Aretxabaletako zaharrena zen.

Margaritaren ustetan lehen baino hobeto jan edo hobeto bizitzea izango da urte asko hartzearen sekretua "gazte gaztetatik lanean erakutsi zigun aitek bai, eta... Lanak ez du zahartzen, inbidiak gehiago. Konformidadea da bizitza, pena heriotza".

Bizimodu aldaketa

Bizimodua asko aldatu dela dio Margaritak, bai lanean, bai janean eta denean. Orain bi egunetan jarraian fileteak jarriz gero jateko, berehala etortzen da kexa. Lehen berriz, baba lapikoari urdaia eta txorixoa sartu eta horixe izaten zen jateko bakarra. Pentsatu ere ez zen egiten orduan hoberik izango zenik "baba lapikorik ez dadila falta txapa gainean".

Emakumea ere lehen baino hobeto bizi delakoan dago, nahiz eta orain ere baserrian lan asko egitea tokatu. "Guk eskola gutxi geneukan eta horrelaxe bizi behar zelakoan, bizi. Emakumea, gizon onena izanda ere aldamenean, beti esklaban".

Semeek jarraitu ez

Tomas eta Jose Inaziok lan-tegian egiten dute lan. Baserriko lanak, hau edo hori izan ezik, ez dituzte sekula ikasi. Jose Inazio makina errotadoraz ibiltzen da baina landatzen eta jorran, ez. Tomasek ittuako lanak ikasi ditu, ganauei azpiak atera, txahalak zituztenean esnea edan erain... Jose Inazio kaletarra dela dio amak, kalea gustatzen omen zaio. Ezkonduta ikusteko esperantza ere galdu du "andrak baino zer gehiago ematen dio futbolak. Beraz, ez dago...".

Munduko gertaeren berri

Kalera ez dira jaisten eta baserria aparte samar geratu arren, Margaritak badu munduko berri. Bere gelan telebista dauka eta horrez gain asko gustatzen zaio irakurtzea, beti izan du irakurtzeko afizio handia. Jose Inaziok egunero hartzen du egunkaria eta Margari-



"Gazte gaztetatik lanean erakutsi zigun aitek bai, eta... Lanak ez du zahartzen, inbidiak gehiago"

tak, baita pasadatxoa eman ere honi. Aretxagazeta ere heltzen zaio eta irakurtzeko betaurrekoekin batera txapa alboan zeukan utzita. Lehen "Hola" "Semana" eta antzeko aldizkariak eramaten zizkion semeak eta gustora irakurtzen zituen. "Leiduten baduzu munduan zer pasatzen den piskat jakin egiten da eta leiduten ez baduzu ezer ez. Gurean, aita ere horrelakoxea zen. Uketuta lanean baina periodikuari bistazoa eman barik sekula ohera ez zen joaten".

Noizbehinka kaleko jendea ere joaten zaie bisitan, batez ere lehen esnea erosten zien bezeroak. Herriko gertaera eta txutxumutxuen berri eramaten diete.

Otsailaren 23an 89 urte bete zituen Margaritak, "neuk zelebratu? Akordatu ere ez igual" esan zigun. Ez dakigu gogoratu zen edo ez baina guk zorianak eta agur bero bat bidali nahi diogu hemendik, orain arte bezain guapa eta airosa jarrai dezala.



Txirrindularitza

Zikloturistak denboraldia-
ren hasieran. Martxoaren
lehenengo domekan hasiera
emango diote zikloturistek
aurtengo denboraldiari. Ohi-
tura den moduan Dorletako
Ama txirrindularien zain-
dariari lore eskaintza egingo
diote egun horretan.

Horren ondoren, denboral-
diaren hasiera ospatzeko
luncha izango dute Valdeza-
te tabernan eta modu horre-
tan gertu izango ditugu txi-
rrinduren gainean kilome-
tro mordoxka bat egiteko.



Pilota

Pilotariak hiru torneotan
burubelarri. Udaberriko tor-
neoaren barruan, Iturbe eta
Lezeta bikote atxabaltarrak
galdu egin zuen Euskal
Jolasen aurka 22-7. Mata
Kortabarria bikoteak, bestal-
de, Bergarako bikoteari irabazi
egin zion 18-22ko emaitzaz.


Euskal Ligan Errasti anaiak
aritu ziren, zumarragarren
aurka garaipen garbia lortuz.
Bukatzeko, Deba Arroan jub-
niletan Uriarte-Oion atxabal-
tarrek 22-17 galdu zuten eta
Errasti anaiek 22-19 irabazi.



Futbola

Preferenteak beste garaipen
bat. Pasa berri den asteburu-
an hiru puntuak berreskuratu
zituen Udako preferenteak
etxean, Rotetaren aurka 1-0
irabazi ondoren. Iñaki Cacia-
garen mutilek bukaera arte
sufritu behar izan zuten, ga-
raipeneko gola azken minu-
tuetan iritsi baitzen.

Garaipen horren ondoren, zap-
pigarren lekuan dago Udako
talde nagusia sailkapen oroko-
rean. Hurrengo ihardunaldia
kanpoan izango dute Beti
Gazteren aurka.



Xakea

Euskal Xake Liga amaitu
berri da eta emaitzak nahiko
onak izan dira Aretxabaletako
taldearentzat. Arlutz A xake
taldea 12 talderen artetik lau-
garren gelditu da txapelketa
honen sailkapen orokorrean.
Taldearen hasierako helburua
maila mantetzea zen eta hori
baino gehiago lortu dute, goi-
ko postuetan mantentzea,
hain zuzen.

Arlutz Bk, bestalde, azken
partida galdu egin zuen, 0-4
Fortunaren aurka. Dena dela,
oraindik ez dago ziur jakiterik
3. mailara jaitsiko den ala ez.

*Txirrindulari mundua gertutik
bizi izan du Asier Bengoak az-
ken bost urte hauetan. Dorle-
tako Ama Txirrindulari eskola-
ko txirrindularia izandakoa da,
eta orain, eskola berean ka-
deteen taldea entrenatzen du.*

■ **Zenbat urte txirrindulari-
tzan?**

■ Hamalau urtekin hasi nin-
tzen kadete mailan. Hiru urte
egin nituen txirrindulari mo-
duan eta hurrengo urtean en-
trenatzaile izateko proposa-
mena luzatu zidaten. Iaz hasi
nintzen infantil maila entrena-
tzen eta aurtengoa kadete
mailan bigarren urtea izango
da.

■ **Biak probatu dituzu, beraz,
zer azpimarratuko zenuke
etapa bakoitzetik?**

■ Bai txirrindulari bezala, bai
entrenatzaile bietan gustura
aritu naiz. Txirrindulari nin-
tzenean asko entrenatu behar
izaten nuen. Orain, lasaiago
nago, denbora gehiago ere ba-
daukat eta.

■ **Entrenamenduak zuzen-
tzeko zein irizpide jarraitzen
duzu?**

■ Dorletako Ama eskolaren ba-
rruan bi espezialista daude,
entrenamenduen plangintza

egiten dutenak. Nik beraiek
esandakoa aurrera eramaten
dut.

■ **Milurte berriaren hasieran,
nola ikusten duzu txirrindu-
laritzaren egoera gure baila-
rran?**

■ Beheranzko joera nabarme-
na erakusten du txirrindulari-
tzak momentu honetan. Orain
hiru urte txirrindularitzan ha-
si nintzenean 21 txirrindulari
ginen. Hurrengo urtean ha-
maika geunden eta iaz sei ba-
karrik. Aurtengo taldean zazpi
mutiko ditut. Futboleak ez
ezik, gainontzeko kiroletan
ere partaidetza kopurua na-
barmen jaitsi da.

■ **Zergatik gero eta txirrin-
dulari gutxiago?**

■ Ez dakit. Jende askori entzun
diot "Indurain efektua" dela-
koa. Indurainen garaipenak
zirela eta, jende gehiago apun-
tatu zen txirrinduan eta orain,
berriz, beherakada nabarme-
na izan da. Auskalo! Dena de-
la, txirrindularitzak sakrifio
haundia eskatzen du eta gaz-
teek juerga ere egin nahi dute.

Asier Bengoa

Dorletako Ama Txirrindulari Eskolako entrenatzailea

Arrazoi horregatik askok uz-
ten du kirola.

■ **Egoera horren aurrean,
irtenbiderik bilatzen saiatu
zarete?**

■ Bai, kirol eskolarraren ba-
rruan txirrindularitza lantzen
hasi gara. Iaz, adibidez, baila-
rako herri guztietan hiruga-
rren mailatik seigarren maila-
ra arteko ikasleekin hainbat
ekintza egin ziren, jolasak,
bizikletaz irteerak... Programa
arrakastatsua izan zen eta
aurten ere jarraituko dugu
ekintza honekin.

■ **Beraz, gazteenak motiba-
tuz hasi behar da.**

■ Bai, txirrindularitzarekiko
zaletasuna gaztetxoetan sus-
peltu behar da, eskoletan kirol
honen inguruko ekintzak bul-
tztatuz. Hortik txirrindulari
batzuk aterako direla espero
dugu.

■ **Zer nolako maila dago txi-
rrindulari probetan?**

■ Gipuzkoa eta Bizkaian maila
oso altua dago eta txirrin-
dulariei asko exigitzen zaie. Adi-
bidez, hamabost urteko batek

tartean portuak dituen 60 km
inguruko karrera bat egin
behar du, eta abiadura haun-
dian gainera. Horrek egunero
entrenatu beharra eskatzen
du.

■ **Eta bukatzeko zure taldea
nola ikusten duzu denboraldi
honetan?**

■ Bi taldekide oso ondo dabil-
tza eta hauek maila ona eraku-
tsiko dute dendoraldian zehar.
Beste batzuek, bestalde, ez
dute horrenbeste entrenatzen
eta igarriko da.



Dorletako Ama abian

Otsailaren 19an Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak denboraldiko aurkezpen ekitaldia egin zuen Hotel Mon-dragonen.

Aurtengo denboraldian 25 txirrindulari arituko dira Fagor, JMA eta Arrasate kirolak enpresen babesean. Fagorrek talde nagusia babes-tuko du eta bertan arituko dira, Imanol Solis, Josu Beitia, Iker Bernal, Aitor Odriozola, Danel Lazkano, Aitor Frutos, Eneko Perez, Josu Pagaldai eta Aitor Pavon txirrindulariak. Talde hau zuzentzen Aitor Garro eta Jose Frutos arituko dira.

Lehen urteko eta bigarren

urteko kadeteen babeslea JMA izango dugu. Bigarren urteko kadete taldea Angel Blazquezek zuzenduko du eta taldekideak Ametz Elustondo, Raul Blazquez, Endika Martin, Paul Mera, Aitor Elorza eta Iñaki Juldain dira.

Lehen urteko taldeari dagokionez, Asier Bengoaren aginduetara, Mikel Arana, Mikel Arregi, Mikel Katania, Josu Galan, Jon Merino, Unai Virumbrales eta Jon Racionero txirrindulariak izango ditugu.

Bukatzeke, lehen mailako eta bigarren mailako infantilak talde berean izango ditu-

gu, Gorka Gonzalez eta Jorge Bachillerren zuzendaritzapean. Talde honetako partaideak, Eddy Perez, Jon Lete eta Julen Galiano ditugu, eta Arrasate kirolak enpresaren babesa izango dute.

Bukatzeke, aurtengo zuzendaritza taldeko lehendakaria Javier Lazkano izango da, lehendakari ordea Angel Blazquez, idazkaria Amparo Lopez eta gainontzeko taldekideak, Jose Frutos, Asier Bengoa, Gorka Gonzalez, Aitor Garro eta Estibaliz Arrizabalaga. Kirol medikua, Alberto Garai, preparatzaile fisikoa Juan Ignacio Errasti eta aholkularia, Jose M. Roldan.

■ ASIER ATXA DENBORALDIAREN ATARIAN

Txirrindulariei karrerak has-teko denboraldia iritsi zaie eta Asier Atxa ere gertu dago Ulma-Cegasa Txirrindulari Taldean bere bigarren urtea egiteko. Talde honek otsailaren 12an egin zuen aurkezpen ekitaldia Oñatiko Unibertsitatean. Guztira hamalau txirrindularik osatzen dute taldea eta horietatik bat Asier Atxa atxabaltarra dugu. Asierrek erronka gogorra izango du afizionatuetako bigarren urtean, izan ere, urtebeteko esperientzia izan baitu jadanik maila horretan.

■ LEHEN MAILAKO KADETEEK 8-0 IRABAZI

Pasa den asteburuan zortzi gol sartu zizkion Udako lehen mailako kadete taldeak Euskalduna taldeari. Gai-nontzeko partiduetan ere gol ugariz gozatzeke aukera izan zen batzuk alde beste batzuk kontra. Lehen Mailako Erregionalak eta Euskal Ligako taldeek galdu egin zuten kanpoan. Almen-Udako lehen mailako jubentilek 5-1 irabazi zuten Soraluze-tarren aurka eta bigarren mailakoek 1-2 galdu Eibar-tarra taldearen aurka. Bigarren urteko kadeteak 4-6 gailendu ziren, eta infantilek, 4-1 galdu zuten Mutrikin.



Otsailaren 19an denboraldiko talde eta babesleen aurkezpena egin zuen Dorletako Ama Txirrindulari Eskolak

Lasai

Miriam Maateca
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoa
Postura azterketa eta egoki-tzean diplomatur

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
Lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

Denetik

Cocker arrazako txakur-kumeak salgai.
Pedigriarekin.
Tel.: 696 057 346.

Txakurra eramateko erre-molke berri berria salgai.
Deitu 943 77 05 75 telefono-ra.

Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko PVCzko kaxa salgai.
Tel.: 943 79 23 69.

Bi salmahai eta apalategi metalikoak salgai. Deitu: 666957983

Txahalak salgai kongeladoran sartzeko.
Labeldunak eta natural hasita. Bildotsak ere bai.
Tel.: 689541861.

Trialeko motorra salgai.
Gas-gas. 250 cc. 91. urtekoa. Motorreko botak oparitzen ditut, 41 zenbakia. Prezioa momentuan adostuko da. Tel.: 943 79 78 36.

Bi motor kasko salgai.
Integrala, 3.500 pta.
"Mosquito" erakoa 2.000 pta. Biak 5.000 pta.
Bizikletako kaskoa: 4.000 pta. Tel.: 649324576.

Piragua salgai. Whip, it.
Arraunekin, "cubrebañe-

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.

ra" eta bi glogorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Abeslari bila gabilta musika taldea osatzeko. Metal musika Sample-ekin nahasten dugu. Gure eraginak talde hauek dira: Fear Factory, Ktulu, Slayer...
Interesatzen bazaizu deitu konpromesurik gabe: Igor 677074821/ Yosu 636253023.

Opel Kadet GSI 2000 16 v salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 75 11/79 98 08 (Mikel).

Etxebizitza

Prentsa saltzen duen denda alokagai edo salgai Aretxabaletan.
Tel.: 943 77 19 20.

Pisua alokatuko genuke Aretxabaletan. Deitu Ibarra tabernara.
Tel.: 943 79 69 86. (Vicen).
Aretxabaleta edo Arrasaten langile batek gela bat behar du bizitzeko.
Tel.: 607 798 723.

57 m²ko garajea salgai edo alokagai Errekabarran kalean.
Tel.: 943 79 74 73.
Gela bat alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 05 28.

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan.
Tel. 649 16 86 69.

Garajea alokagai Santa Kurtz kalean 24. zenbakian. Tel.: 943 79 16 24.

Etxebizitza salgai dago Aretxabaletan, 100 m² eraikiak, 85 m² erabilgariak, ganbararekin. Laugarren pisua, etxe guztiak kalera ematen du. Gas naturaleko bero-gailuaz.
Tel.: 943 77 18 33 edo 943 77 11 76.

Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa).

Hiru-lau langilek pisu bat behar dugu alokairuan hartzeko. Jatorrak gara eta etxea ondo zainduko dugu. Tel.: 943 77 03 36 (Ainhoa)

Logela bat alokatzen da, pisu konpartitu batean Arrasaten.
Tel.: 943 79 23 96.

Etxe bat alokatuko genuke Aretxabaletan edo Arrasaten.
Tel.: 646699843.

Pisu bat edo gelak alokagai. Santa kurtz kalea, 5.
Tel.: 943 77 11 45.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea

943 79 81 78 ARETXABALETA

Lana

Estetizista behar da.
Tel.: 943 79 94 39.

2. LOGSEko zientzietako ikasle batek kimika eta historiako klase partikularak hartuko lituzke.
Tel.: 666 725 332.

BARREN astekariak zuzendaria behar du.
Tel.: 943 74 16 26.

Ingeleseko klase partikularak ematen dira. Maila guztiak.
Tel.: 943 77 08 69.

Dukiena jatetxeak garbitasunerako pertsona bat behar du eta baita astebukaeretan zerbitzari lanerako beste langile bat ere.
Tel.: 945 44 50 86.

Pertsona bat behar da taberna batean zerbitzari lanak egiteko astebukaeretan. Tel.: 943 79 02 25.

Arrasaten kokatutako Informatika enpresak, Informatikan diplomatu edota lizentziatua behar du. "C" ezagupenak. Harremanetarako telefonoa 943 71 20 99.


Lan deialdi publikoak

Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzak zerbitzu desderdinak betetzeko konkurtsoa zabalduko du: garbiketa, sukaldea...
Epea: Martxoak 8.

Azkoitiako Udalak peoi ehorzlea behar du. Eskola-ziurtagiria, lehen euskara maila, kotxeko karneta.
Epea: Martxoak 6.

Eibarko Udalak kioskoa kudeatzeko pertsona behar du.
Epea: Martxoak 11.

Nafarroako Foru Aldundiak, ATS postu bat kaleratu du. ATS titulazioa edo Erizain diplomatura. Epea: Martxoak 8.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

ALMAZENENKO ARDURADUNA. Gasteiz.
Erref: 29412/2

INTERNET IRAKASLEA. Arrasate.
Erref: 28953/2

EKIPO INFORMATIKOETAKO TEKNIKARIA. Arrasate.
Erref: 28841/3

PEOIA. Oñati.
Erref: 28837/5

AHOLKULARIA. Deba Behea.
Erref: 28753/1

ITURGINA. Deba Behea.
Erref: 28675/5

HARRERAGILEA. Deba Behea.
Erref: 28672/4

GOI MAILAKO INGENIARIA. Arabako lautada.
Erref: 28494/4

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxe: 943 79 34 28

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Etxabe
harategia

Durana 4

☎ 943 79 16 61



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

Aramaixoko Etxauen auzoan jaio zen Juan Arbulo. Aretxabaletara gaztea zela etorri zen bere familiarekin batera Oroko Estebangua baserrira. Gaur egun kalean bizi den arren, aste-buruak baserrira joateko eta bertan lasai egoteko erabiltzen ditu.

Juan Arbulo

"Harategian 34 urte egin ditut"



- Aramaixoarra sortzez, eta bizi Aretxabaletan.
- Bai hala da. Gaztea nintzela familia dena etorri ginen Orora. Aitak Estebangua baserria erosi zuen eta.
- Eta hemen harakin. Nolatan lanbide horretan?
- Hamalau urtekin Arrasatera joan nintzen harakin ofizioa ikastera.
- Eta ikasi ondoren, zeure harategia jarri zenuen?
- Hortik urte batzuetara. Ofizioa ikasi eta gero, soldadutza egin nuen. Ondoren, Beroan ere aritu nintzen. Harategian 34 bat urte egingo nituen.
- Harategia asko aldatu da hasierako urteetatik?
- Bai, hasieran okela bakarrik saltzen zen eta kanpotik ez zen ezer etortzen. Oilaskorik ez zen saltzen, adibidez.
- Eta orain nondik ekartzen duzu okela?
- Bertako baserrietatik, Aramaixo, Aretxabaleta...
- Zein da lan gogorrena ofizio honetan?
- Hiltegiko lana da gogorrena. Orain dendan ez da horrelakorik egiten baina lehen bai. Bestalde, hemengo lana ez da astuna baina askotan burukominak ematen ditu.
- Zein lanegatik aldatuko zenuke?
- Irakasle edo..., horiek opor luzeak izaten dituzte eta.
- Bezeroekin zer moduz?
- Oso gustura nago beraiekin. Denda zabaldu nueneko beze-

roak ere baditut.

- Zuk zeuk okela edo hegazia aukeratuko zenuke jateko?
- Biak.
- Denda utzitakoan zer egiten duzu?
- Denbora gutxi gelditzen zait, baina deskantsatu.
- Eta asteburutan?
- Baserrira joaten naiz, txakurrarekin pasian.
- Aramaixo ala Aretxabaleta?
- Aramaixo polita da baina nik Aretxabaleta gurago dut.
- Nola bukatuko du Errealak aurtengo denboraldia?
- Ez dakit, ez naiz futbolzalea.
- Kalkuluak kalkulagailuz ala eskuz?
- kantitate haundiak badira kalkulagailuz baina bestela eskuz.
- Buru ona duzu orduan?
- Bai, nahiko ona gauza batzuetarako. Zorrak samurrago ahazten zaizkit.
- Zerk alaitzen dizu eguna?
- Emakumezko bezeroen bronkarik ez entzuteak.
- Zein animalia edukiko zenuke etxean?
- Etxean bat ere ez, baserrian katua eta txakurra dauzkagu.
- Galdu duzun azken gauza?
- Ba... ez dut gogoratzen, gauza gutxi galtzen ditut.

FOTO

Urkiola

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe Industrialdea C Pab. / 25 postakutxatila
Aretxabaleta Tel: 943 71 21 12/943 71 22 68



Mozorrotu eta kalera

Badirudi norbaitzuk, serio hartu zutela gure konpromezua eta igande hartan, kunplitu zutela 81. urteko neskak. Baina pasa den asteburuan, arazoak izan ei dituzte berriro. Ze arrai! nire bultzada behar duzue bada? Portatu zaitezte... bestela damutuko zarete eta!

Xabier Altube. Hori bai portatu hori!!! Gustora entzungo nituzke bere berba batzuk ilargiaren azpian. Lehen, sari gutxi ez eta orain ere, Bergarako amodiozko gutunen lehiaketan, saria jaso du. Irakurle gazteen saria. Eta berauen iritziz, eskutitz orijinala eta polita ei da; lagun bati, kuadro bat bidali eta irudi horren edukia interpretazio berezi bat eginez bidaltzen dio eskutitza. Ni, neuk, oraindik ez dut esku-ratu baina lortzen dudanean, atseginez irakurriko dut eta kontatuko dizuet zehatzago. Dena dela, niri gustatu gustatu... berak irakurtzea gustatuko litzaidake baina hori baino umilagoa da. Hau da hau! Idazle ospetsu bat herrian eta bere izena ezkutuan gorde nahi!

Ezkutura ez dakit, baina urrutira joan dena, **Benito Arnaiz** izan da. Nafarroako Artanga herrixkan bizi da

eta badute nahikoa lan, beraien txokoa defendatzen. Etxeak bota nahi omen dituzte eta hori gerta ez da-din, borrokan ari dira bertakoak. Animo eta eutsi gogor.

Urrutira joango diren beste ezagun batzuk **Iñurrategi anaiak** dira. Martxoaren 10ean abiatuko dira Nepal aldera, 8.000ko bi mendiri aurre egiteko asmoz, Anapurna eta Manaslu. Ez dute erronka makala!

Gure herritik urrutira joan ez, baina maila asko igo dituen, **Miguel Angel Delgado** da. Eusko Jaurlaritzako Lurralde eta Etxebizitza antolamenduko sailburuordea izendatu baitute. Kargua, izena bestekoa bada, ez da makala. Eta agian, horrelako karguetan herriko ordezkari bat izatean, Atxabaltako etxebizitzaren prezioak merketu egingo dira. Nork daki! Garai onean erosi nuen nik etxea. Bestela orain nork erosi... Beno, horrelako burukomina alde batera utzi eta banao, mozorroa prestatzera. Baina zer prestatu? "Jiraldita"rena ez litzateke txarto egongo baina... zaillegia. Edo... telefono mugikorrena, agian?

M. J. Arnaiz



Nola dastatu ilargia?

Michael Grejniec
Kalandraka, 1999

Animaliek aspalditik galdetzen zioten bere buruari ea zein zapore izango zuen ilargiak. Halako batean dortokak ikusi du ilargia mendiaren magalean eta badoa mendian gora ilargia dastatu nahian, baina heltzerar dagoela ilargiak piska bat gora egin eta ezin izan du harrapatu. Orduan elefanteari egin dio dei eta elefantea dortokaren bizkarrera igo da, baina berriz ere gora egiten du ilargiak eta elefanteak ezin du dastatu ilargia. Deitu diote jirafari, zebrari, lehoiari... Lortuko ahal dute jakitea zein zapore duen ilargiak?

Eskertzekoa da argitaletxe galiziar batek honelako album bat euskaraz argitaratzea, mota honetako liburuetan dagoen hutsunea nolabait betetzera datorrena. Liburu bikaina da hau bi urtetik gorako haurrei kontatzeko.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Euskara zuzentzen atal berria da Aretxagazetan. Bertan euskaraz berba egitean sarri-sarri egiten ditugun akatsak tartekatzen joango gara. Honekin batera tarteka-tarteka Kurtzebarri eskolako ikasleek egindako komikiak ere azalduko dira, oraingo honetan bezala. Aukeratutako akatsa egunerokotasunean askotan entzuten dugun horietakoa da, bai kalean, eskolan... Gazteek eta bai nagusiek ere egiten dutena.



OTSAILA

24 EGUENA

■ BIDEO ETA DIAPOSITIBA EMANALDIA

Hiruatzek Condegari buruzko bideo eta diapositiba emanaldia antolatatu du. Loramendiko aretoan (udaletxe zaharra) izango da arratsaldeko 7:30ean.

24-27

■ OÑATIKO INGURUGIRO ASTEA.

Otsailaren 25ean Euskal Herriko otsoaren egoera eta bidegarritasunari buruzko hitzaldia, Mario Saenz de Buruaga biologoaren eskutik. 26an zapatua, irteera hegaztiak behatzera "Mendixur" parke ornitologikora. Goizeko 8,30ean Herriko plazan. Domekan zuhaitz eguna Duru-Malla inguruan. Antolatzailea: Oñatiko natur eskola. Egun hauetan zehar "Natura iruditan" arte erakusketa egongo da. Juan Varela biologo eta marrazkilariaren eskutik. Olakua dorretxean egunero 6etatik 8:30etara.

27 DOMEKA

■ SANTA AGEDA MUTILEN DANTZA SAIOA herriko plazan arratsaldeko 7etan.

28-29

■ ERAKUSKETA

"Hondakinak gutxitu eta birziklatzea" eta "Bitxien" izenburupean erakusketa izango da udaletxe zaharrean, Mankomunitateak eta Udalako Ingurugiro eskolak antolatuta. Ordua: 18:00-20:00.

28 ASTELEHENA

■ PRENTSAURREKOA

Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak aratusteeko ekintzen berri emango du udaletxeko ganbaran arratsaldeko 7etan.

29 MARTIZENA

■ HITZALDIA ARRASATEN

"Emakumeen partehartzea espazio publikoan". Arantza Urkaregiren eskutik arratsaldeko 7etan Monterronen.

MARTXOA

1-2

■ ERAKUSKETA

"Hondakinak gutxitu eta birziklatzea" eta "Bitxien" izenburupean erakusketa udaletxe zaharrean. Ordua: 18:00-20:00.

2 EGUENA

■ HITZALDIA

Produktu biologikoei buruzko hitzaldia, Tomas Larrañagaren eskutik. Arratsaldeko 7etan udaletxe zaharrean.

5 DOMEKA

■ ARATUSTEAK.

Egitaraua barnealdean.

■ MENDI IRTEERA

Zaraia mendi taldeak Arlaban-Otzaurte mendi irteera egingo du.

7 MARTIZENA

■ ARATUSTE MARTIZENAN.

8 EGUAZTENA

■ MANIFESTAZIOA

Emakumeen eguna dela eta arratsaldeko 7:30ean Arrasateko Sebero Altuben.

IKASTAROAK

■ HAURRENTZAKO MASAJEAK

Urte bat arteko haurrak dituzten gurasoei zuzenduta. Haurra lasaitu, koliko eta hortzaldietako minak baretu, umeari hobeto lo egiten lagunduko dioten masajeak... Martxoaren 4an goizeko 11:30ean Araba Etorbidea, 3-2-3 atea Arrasaten. Tel.: 943 77 08 05.

■ IRRATI TAILERRA

Arrasaten irrati kontrola eta erredakzio eta esataritza ikastaroak. Irrati kontrola martxoaren 14tik apirilaren 13ra. Erredakzio eta esatari tailerra zehazteko. Izen ematea eta informazioa gazte bulegoan 943 77 00 65.

■ EUSKAL DANTZAK

Arrasaten martxoaren 3tik ekainaren 16ra, 21 ordu. Ostiraletan 7:30etatik 8:30etara. Informazioa eta izen ematea: gazte bulegoa 943 77 00 65.

BEKAK

■ POSTGRADUATUA ATZERRIAN

La Caixaren eskutik, 35 urte azpiko lizentziatuei edo azken urteko ikasleei zuzendua. Informazioa: 900 110 111.

BALOITZAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

AGENDA

Zorionak



Margarita Lasagabaster
Otsailak 23
Koldo eta Mirarien partez zorionak eta urte askotarako.



Ibon Elordui-zapatarietxe
Otsailak 23
Amatxon partez zorionak eta urte askotarako.



Jose Angel Antxia
Otsailak 24,
Zorionak.
Emazteak eta alabek.



Jokin Antxia
Otsailak 25,
Zorionak gure batzordekideari.
Atxabalta telebista eta Aretxagazetak.



Mireia Frutos
Otsailak 25,
Etxekoien partez zorionak.



Dorleta Arana
Otsailak 29,
Urte askotarako, bere aizpak.



Paquita Hernandez
Martxoak 2
zorionak zure lagunaren partez.

Txistuak • Txaloak

Honako hau txaloa izan daiteke norbaitzuendako eta txistua beste batzuendako. Belorrietan ia obrak bukatu dituzte eta jardin ederrak ditugu orain. Andra Mari eta Loramendi kaleetatik Makai enpresakoek gustuz hornitutako kalitatezko kalea ikus daiteke. Baina inguru berde hauetara inguratzaren garen heinean, hain atsegina ez den zerbaitetaz oharzaren gara. Lorategiak oztopo txikiz beteta daude, ez dira perretxikoak, ez, txakurren kakak baizik; animalia hauen jabeek euren txakurrak leku publiko hauetan libre uzten baitituzte. Beraz, **txistuak** leku publikoekin hain "errespetutsuak" diren hauei eta **txaloak** kakaleku hauetan lan egitea tokatzeaz gain, dena polito uztea lortzen dutenei.



Atxabalta telebista

20:00

20:30 / 21:00

martizena

ALBISTEAK/Agenda
Argazki-zaharrak
Kiorlak

Albiste errepikapena

egukotxa

ALBISTEAK/Agenda
Eguraldia

Albiste errepikapena

Zorion agurrik argitaratu nahi baduzue, Aretxagazetara zuzendu, Durana, 11 edo 151 postakutxatilara bidali.

Jaiotakoak

■ **Nerea Fernandez de Antona Zudaire**

Otsailaren 6an.

■ **Jon Aizpurua Oliden**

Otsailaren 15ean.

Hildakoak

■ **Jose Ramon Varona Badiola**

52 urte.

Otsailaren 12an.

■ **Josefa Garro Sasiain**

93 urte.

Otsailaren 19an.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.L.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa


• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Kotxe dotorea Arane baserrian

E

gia esan, argazkiko kotxea ez zen Arane baserrikoa baina bai familiartekoa. Kotxe dotorea ezta? Eta jakina, aukera ezin galtzen utzi. Argazkia ateratzeko kotxearen aurrealdean jarri ziren zintzo-zintzo Artabeko Faustino Lasagabaster (ezkerrean), Jose Ignacio Altube (erdian) eta Felix Altube. Cherrolet kotxearen jabea Ramon Altube zen, Jose Ignacioren aita.

Gaur egun Erreterian bizi da argazkian azaltzen den Jose Ignacio Altube. Askorentzat ezaguna izango da, eskubaloian jokalaria eta entrenatzaile aritutakoa baita. Atletico Madrilen eta Bidasoan jokatu zuen, eta ondoren, Euskal telebistan ere aritu zen esatari lanetan. Gaur egun Erreterian bizi da. Norbaiten antzik hartzen diozue?

1965. urte inguruan atera-

tako argazkia honetan hiru baserri ikusten dira. Ezkerraldean Arane, goian Mendietxe eta urrunean ageri den puntu txuri txiki bat, Ursulari behekoa baserria. Azken hau desagertuta dago gaur egun, orain 20 bat urte bota zen. Markitegi gainean zegoen; Dionisia Olalde eta bere sendia bizi ziren bertan.

Argazkia: Felis Altube.

Informazioa: Felis Altube.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 85 57

Izotz taberna

Zure gustoko giroa
**IZOTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna
GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Matikua jatetxea



Azatza auzoa ♦ Tfnoa: 943 79 16 68

Arlutz taberna

ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA: 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

• *Parrila espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABAETA ☎ 943 79 68 57

Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



*Bazkariak
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABAETA

Mitartegarai

Mitartegarai
Jatetxea

Arientza auzoa
Aretxabaeta
Tel.: 943 79 17 51



Artano taberna

**Herriko
plazan
ARTANO**

Girorik onena

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

Josu harategia/taberna

**Josu
harategia-
taberna**

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri

**Taberna Berri
jatetxea**



Durana, 26 • ARETXABAETA
☎ 943 79 20 67

Urbaltz taberna

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik